

**EUSKO JAURLARTZAKO HIZKUNTZA
POLTIKARAKO IDAZKARI NAGUSIAREN
AGERRALDIA, BERAK ESKATUTA,
EUSKO LEGEBILTZARREKO IRASKUNDE
ETA HERRIZAINGO BATZORDEAREN AURREAN**

(Vitoria-Gasteiz, 1992ko azaroak 13)

I. BALANTZE OROKORRA

I. 1 EAEko soziolinguistikazko egoeraren ikuspegi orokorra

I. 1.1 1981eko eta 1991ko errolden azterketa konparatiboa.

EUSTATEk, Euskal Estatistika Erakundeak, argitaratutako 1981 eta 1991ko erroldetako hizkuntza gaitasunari buruzko datuen azterketa erkatuak (I. Eraskina) emaitza hau eskaini digu:

-Euskal Autonomi Elkartean (EAE) euskaldunen ehunekoak, edo, hobeto, elebidunena, hamar urtetan, %21,5etik %26,7ra pasatu da, hau da, %24,18ko igoera. Ia-euskaldunen koporuak %34,8ko gorakada izan du eta erdaldunena %15,93a jaitsi egin da.

-Tokiaren ikuspegitik, adierazgarriena da euskaldunen igoera lurralde guztietan gertatu dela, euskaldunen (+% 146,15) eta ia-euskaldunen (+% 103,15) ehunekoak gorakadarik handiena Araban izan badu ere.

-Adinaren ikuspegitik, esan liteke adin-talderik gazteenetan